

Elkarrizketa GEBren hurrengo ikastaroaren irakasle Antonio Jesús Rodríguez Martínezekin, EBeko gazteen mugikortasun-baliabideei buruz

Europako Europe Direct Andújar informazio-zentroko arduradun Antonio Jesús Rodríguezek «Gazteen mugikortasun-baliabideak Europar Batasunean» ikastaroa emango du azaroaren 8tik 10era, Gazteen Euskal Behatokian.



Antonio Jesús Rodríguezek hamabi urte inguru eman ditu Europari buruzko informazio-guneetan, Europar Batasuneko politikak herritarrei gerturatzeko lanean. Duela bost urte, Europe Direct Andújarrek mugikortasuna bultzatu eta zabaltzeko helburu nagusia hartu zuen bere gain, beste herrialde batzuetako gazteekin esperientziak elkarbanatzeko, beste hizkuntza batzuk ikasteko atzerrian praktikak egiteko eta,

batez ere, Europar Batasun osoan langabezia eta eskola-uzte indizerik garaienak dituen biztanleria-sektorearen egungo egoera ekonomikoa dela-eta, lana aurkitzeko gazteek duten nahia ikusita.

Nolako interesa ikusten duzu gazteria-teknikariengan gai honekiko? Beste alde batetik, zure ustez, ba al dute nahikoa prestakuntza eta baliabide esparru honetan lan egiteko?

Informazio-eskari ugari dago gazteria-teknikariengandik eta lan-orientatzaileengandik. Izan ere, batetik, beren erabiltzaileen eskaria handia da eta, bestetik, informazio-andana dute Interneten, baina administrazio gutxik prestatu dute gaiari buruzko prestakuntza-planik edo berariazko orientaziorik. Orain arte gazteentzako informazioa bestelako gai batzuetara zuzendu da —aisia eta astialdia, osasuna edo gaikuntza pertsonala, kasu—, eta, horrenbestez, prestakuntza eta baliabideak jarduera horietara bideratu dira.

Zure iritziz, gazteek ba al dute nahikoa informazio mugikortasunaren aldeko programa eta laguntzei buruz? Ba al dakite non bilatu informazio hori?

Gero eta ezagunagoak dira mugikortasun-programak. Ia gazte guztiek ezagutzen dute Erasmus eta, hein txikiagoan, Leonardo da Vinci edo Gazteak Ekinean. Baina oinarrizko ezagutza hori izena ezagutzera eta zertarako diren jakitera mugatzen da. Ez dakite nola parte hartu edo nora jo. Are gehiago, hortik zehar dabilen informazio gehiena euren kontaktuen bidez edo euren inguruko gazteen esperientzien bidez jaso dute. Oso ohikoa da urtean Comeniusen bizpahiru elkarterekin parte hartzen duten ikastetxeak aurkitzea eta, aldi berean, hiriko edo eskualdeko gainerako ikastetxeetan parte hartzen ez dela ikustea, eta gauza bera gertatzen da Gazteak Ekinean egitasmoarekin.

Zer da, zure ustez, mugikortasun-esperientzia batek gazteei egiten dien ekarpen nagusia?

Europako programetatik arrakastatsuen Erasmus da. Europako bi milioi gaztek baino gehiagok bizi izan duten esperientzia da, eta beste herrialde batzuetarako mugikortasunaren abantailak hobekien erakusten dituena. Ikasle gehienek esperientzia hori oso positiboa izan dela deritzote, euren bizitzetako onenetakoa. Beste herrialde batean, beste kultura batean, beste hezkuntza-sistema batean eta giza harremanen beste sistema batean txertatzeak heldutasun handia ematen die, bai eta erronka eta egoera berriei —pertsonal nahiz profesionalei— aurre egiteko gaitasuna ere.

Gazteei egiten zaien mugikortasun-eskaintzan, non asmatu dute eta non dago gabeziaren bat, zure ikuspuntutik? Zein da zure iritzia gai honen inguruko ekimen berrienei buruz, esate baterako, Gazteak Ibilian egitasmoari buruz?

Europako administrazioa elefante handia da oraindik ere: oso astiro ibiltzen da. Gabezien artean gazteriaren arloko proiektu bat egiteko beharrezkoa den burokrazia edo Leonardo bezalako beka batzuk eskuratzeko dauden zailtasunak daude. Europar Batasunaren Gazteak Ibilian bezalako ekimenek ideia eta proiektu berriak darabiltzate —gazte ekintzaileei laguntzeko Mikrofinantziario Tresna Europarra, adibidez—, baina estatuetako gobernuen bultzadarik gabe, egitasmo hauek ez dira zinez gizartean sartzen.